



Puede Pasaia(k) Ahal Du udal taldearen mozioa Pasaiaiko Udalak martxoaren 8ko Lanuzte Feminista sostenga dezan.

Mugimendu feministak nazioartean lanuztea egiteko deia egin du 2018ko martxoaren 8ko honetan, 70 herrialde baino gehiagotan hain zuzen ere, izenburu honen pean: *“Emakumeok Planto. Nosotras paramos”*. Lanuztearen helburua emakumeen lanak gure jendartean duen inpaktua ikusaraztea da, eta halaber exijitzea aitortua izan dadin.

Desberdintasuna egunero hainbat arlotan nabarmentzen da, baina, dudarik gabe, lan munduan nabarmentzen da gehien: generoen arteko soldata arrakala %20koa da gizonen alde; emakumeek bereganatzen jarraitzen dute mundu osoan ordaindu gabeko lan-zama desproporzionatua; seme eta alaben zaintzan erantzukizunak banatzea ahalbidetzen duten amatasun eta aitatasun baimenak ez dira ematen edota urriak dira.

Emakumeak dira proportzio izugarrian adingabeko, senitarteko eta mendetasuna duten pertsonak zaintzera dedikatzen direnak. Hori guztia modu ez aitortuan eta batere ordain ekonomikorik gabe. Ugaltze-lanak ezin dira alde batera utzi, eta sistema ekonomikoa lan altruista horien beharrean da funtzionatzeko.

Legezko xedapen formaletatik kanpo -estatuaren zerga-kontroletatik kanpo ere- lan egiten eta ordainsariak jasotzen dituzten munduko lan-jardueraren %63 emakumeek egiten dute; emakume migratzaileek lan-baldintza prekarioagoak izan ohi dituzte gizon migratzaileek baino, lanaldi luzeagoak egin beharrean dira eta babes sozialik ez dute edo gizonena baino mugatuagoa da; emakumeen aurkako indarkeria lanaren arloan errealitate ezin onartuzkoa da: bakarrik Europar Batasunean, sexu-jazarpena izan dutela ziurtatzen duten emakumeen %55etik %32 lantokian izan dute.

Legeek erretiro-pentsioa jasotzeko aurreikusten duten adinera heldurik, munduan pentsiorik jasotzen ez dutenetatik %65 emakumeak dira. Hau guztia mundu mailan lanaren arloan emakumeen egoera kezkarria dela egiaztatzen duten datu bakar batzuk baino ez aipatzearren.

Horren aurrean gizon eta emakumeen arteko diskriminazioa amaitzeko betebeharrak etikoak izateaz gainera konpromiso historiko atzeraezina da, non estatuko erakunde guztiek aktiboki esku hartu eta paper protagonista jokatu behar duten. Horregatik eta sindikatuek martxoaren 8an munduko mugimendu feminista osoak antolatu duen nazioarteko lanuzteari legezko estaldura emateko iragarkia egin dutela, Pasaiako Udalak honako akordio hauek hartzen ditu:

1. Pasaiako Udalak beharrezko diren neurri guztiak hartuko ditu lanuztea egiteko oinarritzko eskubidea bermatzeko emakumeen aurkako diskriminazio legal, politiko, moral eta ahozkoaren aurka daudenei.

2. Pasaiako Udalak sostengua, publizitatea eta babesak ematen dio sindikatuekin elkarlanean hainbat erakundek martxoaren 8rako deitu duten emakume lanuzteari.

3. Pasaiako Udalak udalerriko emakume guztiei egiten die dei lanuztea egin dezaten eta herritar guztiei egun horretan egiten diren mobilizazioetan parte har dezaten.

4. Pasaiako Udalak aotrotzen du Pasaiako hainbat taldek eta udal teknikariek berdintasunaren alde egiten ari diren lana.

5. Pasaiako Udalak hitza ematen du jarraituko duela:

- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatzen, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzen eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatzen.

- Bere eskumenen alorrean laguntzen, zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezkeen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatzen.

- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatzen

- Balioen transmisioa azpimarratzen, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezkeen.